



Itxierak AP-1ean astearte eta asteazken gauetan

Ekainaren 2ko eta 3ko gauetan Arrasateko irteera adarra itxiko da bi norabideetan, eta 3tik 4rako gauan, AP-1 eta AP-8 arteko lotunea Behobiako norabidean.

Bidegik jakinarazten du, aste honetan hainbat itxiera egongo direla AP-1ean, alde batetik, zoladura konpontzeko lanak egiteko, eta bestetik, Maltzagako birgaitze lanekin jarraitzeko.

Lehen itxiera, ekainaren 2ko – asteartetik, asteazkenera – eta 3ko – asteazkenetik, ostegunera – gauetan gertatutako da, Arrasaten, 130,500 puntu kilometrikoan. Bertan, AP-1etik Arrasatera irtetzeko bi norabideetako adarrak itxiko dira, zoladura konpontzeko lanak egiteko. Horrenbestez, irteera bi norabideetan itxiko da asteartetik asteazkenera 21:00etatik 03:00etara, eta aldiz, asteazkenetik ostegunera, 00:00etatik 03:00etara, gutxi gorabehera.

Denbora tarte horretan Arrasatera irten nahi duten erabiltzaileek Eskoriatzako 123 lotunea erabili beharko dute, ondoren GI-627tik Arrasatera joateko.

Bigarren itxiera, ekainaren 3tik 4rako gauan – asteazkenetik, ostegunera – 21:30etatik 05:00etara egingo da, gutxi gorabehera, AP-1 eta AP-8 errepideen arteko lotunean, Behobiako norabidean, Maltzagako zubibidearen birgaitze-lanak direla-eta.

Ondorioz, AP-1etik AP-8ra joan nahi duten ibilgailuek Eibarko 145 irteera hartu beharko dute, eta behin biribilgunean buelta emanda, berriro AP-8ra sartu Behobiako norabidean.

Zarautz, 2026-06-02



Cierres en la AP-1 las noches del martes y el miércoles

Las noches del 2 y 3 de junio se cerrarán los ramales de salida de Arrasate, y la noche del 3 al 4 de junio, el enlace entre la AP-1 y la AP-8 sentido Behobia.

Bidegi informa que esta semana se producirán diferentes cierres en la AP-1, por una parte, para realizar labores de reparación del firme, y por otra, para continuar con los trabajos de rehabilitación del viaducto de Maltzaga.

El primer cierre se producirá las noches del 2 de junio – de martes a miércoles – y del 3 de junio – de miércoles a jueves – en Arrasate, en el punto kilométrico 130,500, en el que se cerrará el ramal de salida en ambos sentidos para poder realizar labores de reparación del asfalto. Así, de martes a miércoles los ramales de salida se cerrarán aproximadamente entre las 21:00 y las 03:00horas, mientras que la noche del miércoles al jueves, el cierre será aproximadamente entre las 00:00 y las 03:00horas.

Durante ese espacio de tiempo, las personas usuarias que deseen salir en Arrasate deberán utilizar el enlace 123 de Eskoriatza, para posteriormente dirigirse a Arrasate por la GI-627.

El segundo cierre se producirá la noche del 3 al 4 de junio – de miércoles a jueves – entre las 21:30 y las 05:00 horas, aproximadamente, en el enlace que une la AP-1 con la AP-8 sentido Behobia. El motivo del cierre son las obras de rehabilitación del viaducto de Maltzaga, que se vienen realizando desde hace unos meses.

De este modo, los vehículos que tuvieran intención de circular por dicho enlace deberán utilizar la salida 145 dirección Eibar, para dar la vuelta en la rotonda y volver a entrar en la AP-8 sentido Behobia.

Zarautz, 2026-06-02